


Udalarekin

Euskaraz

ESKOLETARAKO UNITATE DIDAKTIKOA



ADMINISTRAZIOKO TESTUITAKO TERMINOLOGIA

SIGLA ERABILGARRI BATZUK

UDALAREN ANTOLAKETA HOBETO EZAGUTZEKO ARIKETAK

ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANITAN TOPA DITZAKEGUN IDAZKIAK

BERGARAKO KALE, PLAZA ETA ERAIKIN BATZUEN IZENAK

Lehenengo ariketa

Administrazioko testuetan sarritan agertzen diren hitzak lantzeko ariketa bat duzue hau:

eskumako eta ezkerreko zutabeetan sinonimotzat har daitezkeen berbak daude baina ordena aldatuta.

Hortaz, ea antzeko esanahia daukaten berbak lotzen dituzun!

- | | |
|------------------------|------------------|
| 1. Abisua | a) Adjudikatu |
| 2. Abizena | b) Eskumena |
| 3. Aditzera eman | c) Diktamena |
| 4. Agiria | d) Arau-urraketa |
| 5. Ahalmena | e) Bilkura |
| 6. Aitortu | f) Ziurtagiria |
| 7. Arau-haustea | g) Debalde |
| 8. Arautegia | h) Deklaratu |
| 9. Batzarra | i) Ebazpena |
| 10. Departamendua | j) Dokumentua |
| 11. Doan | k) Udalbatzarra |
| 12. Egiaztagiria | l) Emakida |
| 13. Egitasmoa | m) Deitura |
| 14. Erabakia | n) Araudia |
| 15. Eraikina | o) Zergapekoa |
| 16. Esleitu | p) Ohartarazpena |
| 17. Helburua | q) Jakinarazi |
| 18. Hodia | r) Edifizioa |
| 19. Irizpena | s) Xedea |
| 20. Kontsezioa | t) Korporazioa |
| 21. Likidatu | u) Saila |
| 22. Sinatu | v) Kitatu |
| 23. Udal osoko bilkura | w) Proiektua |
| 24. Udalbatza | x) Tutua |
| 25. Zergaduna | y) Izenpetu |
- 

Bigarren ariketa

Bi letra-zopa aurkezten dizugu orain, eta bakoitzean administrazioko testuetan sarri agertzen diren 8 berba topatzea da kontua (egia esan, batzuk ez dira eguneroko berbaldietan askotan erabiltzen ditugunak, baina laguntza moduan hitzen hasierak markatuta jarri ditugu).

Guk binaka jarrita egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, bakoitzak orri bat hartuko duzue, honetan "A" letra-zopa eta "B"koaren azalpenak dituzu, eta besteak alderantzizkoak izango ditu. Hortaz, txandaka eta banaka saiatu definizioak (nahi dituzun azalpen osagarriekin) ahalik eta garbien ematen —hitza bera esan gabe, jakina—, ikaskideak berba hori asmatu arte.

Eta banaka egin nahi baduzue, kontuan izan orri honetako definizioei dagozkien hitzak hurrengo orriko letra-zopan topatuko dituzula.

A letra-zopa

G	K	A	W	Q	V	B	Y	R	G	J	K	S	S	Z
G	B	A	E	T	N	E	I	D	E	P	S	E	S	Z
B	D	F	L	J	K	T	R	E	N	J	K	Ñ	A	H
F	H	M	A	T	D	F	T	E	H	J	K	I	U	J
K	B	D	G	T	E	R	E	G	W	I	B	Q	M	A
A	B	E	H	I	N	-	B	E	H	I	N	E	K	O
N	W	U	W	M	V	R	O	E	K	T	Q	T	F	R
A	S	S	D	S	B	T	W	R	R	G	K	R	Y	T
L	Q	T	F	W	F	H	X	G	D	H	L	H	U	S
A	K	O	K	E	M	A	K	I	D	A	F	V	I	A
M	E	R	H	M	E	N	S	H	E	E	I	C	K	T
A	R	M	G	G	R	M	X	W	G	W	G	N	T	A
Z	K	A	K	A	I	R	A	K	E	R	R	U	A	K

B letra-zoparako definizioak

1. Daramanaren benetako identitatea ziurtatzeko Estatuak agindutako agiri ofiziala	Nortasun-agiria
2. Zerga bat ordaindu ondoren, hori ziurtatzeko ematen diguten agiria	Ordainagiria
3. Lege edo aginduren bat hausten duenari jartzen zaion diru-zigorra	Isuna
4. Entitate administratibo jakin bateko (kasu honetan Udaleko) biztanleen zerrenda	Errolda
5. Zela deitzen zaio ur zikinak eta euri-urak batzeko udalerrian dagoen tutueria sareari?	Estolderia
6. Ordaindu beharreko zerbait nondik kobratu daitekeen adieraztea; adibidez, elkarte bateko bazkide-kuota zuzenean banketxetik kobratu dezaten egiten duguna	Helbideratu
7. Historian zehar metatzen diren herri baten ondasun material edo kulturalen multzoa; garai jakin baten ondorioz gizartean gelditzen den emaitza	Ondarea
8. Dirulaguntza bat jasotzen duena, edo udalak eskainitako zerbitzu baten onurak jasotzen dituena.	Onuraduna

Bigarren ariketa

Bi letra-zopa aurkezten dizugu orain, eta bakoitzean administrazioko testuetan sarri agertzen diren 8 berba topatzea da kontua (egia esan, batzuk ez dira eguneroko berbaldietan askotan erabiltzen ditugunak, baina laguntza moduan hitzen hasierak markatuta jarri ditugu).

Guk binaka jarrita egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, bakoitzak orri bat hartuko duzue, honetan "B" letra-zopa eta "A"koaren azalpenak dituzu, eta besteak alderantzizkoak izango ditu. Hortaz, txandaka eta banaka saiatu definizioak (nahi dituzun azalpen osagarriekin) ahalik eta garbien ematen —hitza bera esan gabe, jakina—, ikaskideak berba hori asmatu arte.

Eta banaka egin nahi baduzue, kontuan izan orri honetako definizioei dagozkien hitzak hurrengo orriko letra-zopan topatuko dituzula.

B letra-zopa



T	W	R	T	G	E	V	Q	C	X	W	J	K	T	T
T	S	V	R	V	A	N	U	D	A	R	U	N	O	T
E	F	U	W	D	V	O	W	V	D	N	G	F	P	G
K	T	T	D	W	A	P	F	F	G	S	U	V	T	V
I	E	A	F	F	W	I	E	D	H	Z	T	S	E	C
N	O	R	T	A	S	U	N	-	A	G	I	R	I	A
A	H	E	H	D	E	F	G	A	K	G	D	C	W	A
W	J	D	J	G	G	Q	B	V	G	Y	H	G	Q	E
X	K	I	K	H	F	F	C	G	D	I	J	A	H	R
C	E	B	L	J	J	A	D	H	F	J	R	K	Q	A
G	G	L	I	E	S	T	O	L	D	E	R	I	A	D
T	R	E	U	K	K	F	C	K	W	K	K	L	A	N
Y	T	H	T	A	D	L	O	R	R	E	L	Ñ	K	O



A letra-zoparako definizioak

1. Gai edo negozio bat sortu, eratu eta osatzeko erabiltzen diren izapideen (tramiteen) multzoa adierazten du	Espedientea
2. Merkatariek salgaiak dendan sartzeko egin behar izaten dituzten lanak; horretarako gordetako aparkalekuak ere izaten dira.	Zamalanak
3. Denbora labor baterako dena; behin betikoa topatu arte esate baterako	Behin-behineko
4. Administrazioaren eta enpresa edota partikular baten artean, obra edo zerbitzu publiko bat ustiatzeko egindako kontratua	Emakida
5. Zela esaten zaio errepideak eta egiten dituztenean lurrei eusteko egiten den hormari?	Eustorma
6. Bide publikoan, lokal batean sartu ahal izateko ibilgailuentzat baimendutako pasabidea	Ibia
7. Pertsona fisiko edo juridiko bati gertatutako edo eragindako kalte-galerak kitatzeko ematen den ordaina, oro har diru-kopuru bat izaten dena.	Kalte-ordaina
8. Etxalde eta lursailak, haien neurri eta lantze-mota ezberdinak, jabetza eta eraikuntzari buruzko egoera eta balio fiskala erregistratzen dituen bulego edo liburu ofiziala.	Katastroa

Siglak

maiuskulaz eta
puntuarik gabe
idazten dira**Zer da hori?**

Hirugarren ariketa

Siglak identifikatzen dituzun ikusteko ariketa bat orain.

Batzuetan euskarazko sigla eta bere azalpena dauzkazu eta gaztelaniazko baliokideak topatzea proposatzen dizugu, eta beste kasu batzuetan alderantziz, gaztelaniazkoak daukazu bakarrik eta euskarazko ordaina jartzea litzateke zure eginbeharra. Animo!

EUSKARAZ

GAZTELANIAZ

<u>Sigla</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Sigla</u>	<u>Azalpena</u>
AHT	Abiadura Handiko Trena		
		IVA -	Impuesto sobre el Valor Añadido
DBHO	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoa		
		CAV -	Comunidad Autónoma Vasca
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria		
		BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundeak		
		SS	Seguridad Social
HAEE	Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea		
		EPA	Educación Permanente de Adultos
HGA	Hondakinen Gordailu Alternatiboa		
		SIDA	Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida
IFK	Identifikazio Fiskaleko Kodea		
		AMINP	Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas
KPI	Kontsumo Prezioen Indizea		
		SMI	Salario Mínimo Interprofesional
NA	Nortasun Agiria		
		CB	Comunidad de Bienes
OHO	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra		
		IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
TJOL	Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea		
		CP	Código Postal
SHEE	Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea		
		COU	Curso de Orientación Universitaria
UHUN	Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala		

Laugarren ariketa

4.1. Liburuxkan zuzenean agertzen ez badira ere, Udala kudeatzeko antolatuta dauden batzordeak, sailak, lanpostuak eta abar ezagutzen dituzun ikusteko ariketa bat proposatzen dizugu orain.

Hau ere binaka jarrita egitea proposatzen dizugu. Zuk A galderak eta B erantzunak dituzu; hortaz, lehenengo zure definizioei dagozkien hitzak topatzeko ahalegina egin eta gero zure ikaskidearekin elkartu eta zuzen asmatu dituzun ikusi.

Ea asmatzen dituzun!

A

1. Udalak lanpostu baterako deialdia egin du eta zure eskabidea aurkeztu nahi duzu, zein sailetara joango zara eskabideari sarrera-erregistroa ematera?
2. Nola deitzen zaio alkatea ez dagoenean bere eginkizunak betetzen dituen pertsonari?
3. Udala kudeatzeko antolaketan hainbat sail dauden moduan, hainbat batzorde ere badira, zein da Bergarako Udalean erabakirik garrantzitsuenak hartzen dituen batzordea (Udalbatzarraz aparte)?
4. Udaletxeko langileak dira udal barruan trafikoa arautzen ibiltzen direnak. Zela deitzen zaie langile hauei?
5. Zuen amamak etxeko lanak egiteko eta arratsaldeetan paseatzera ateratzeko laguntzailereren bat behar du eta zuek zuzenean kontratatu ordez Udaletxera jo duzue; zein langilerekin berba egin behar duzue?

B- Erantzunak

Udaltzainburua

Auzo-alkateak

Kontuhartzailertzan

Zinegotziak

Jakinarazlea

Laugarren ariketa

4.1. Liburuxkan zuzenean agertzen ez badira ere, Udala kudeatzeko antolatuta dauden batzordeak, sailak, lanpostuak eta abar ezagutzen dituzun ikusteko ariketa bat proposatzen dizugu orain.

Hau ere binaka jarrita egitea proposatzen dizugu. Zuk B galderak eta A erantzunak dituzu; hortaz, lehenengo zure definizioei dagozkien hitzak topatzeko ahalegina egin eta gero zure ikaskidearekin elkartu eta zuzen asmatu dituzun ikusi.

Ea asmatzen dituzun!

B

1. Zela esaten zaio udaltzainen lanak antolatzeko ardura duen pertsonaren lanpostuari?
2. Nola esaten zaie Baserni Auzoetako Batzordearen bileretan parte hartzen duten auzoetako ordezkariak?
3. Ibilgailuaren zerga ordaindu behar duzu. Udaletxeko zein sailetan ordaindu behar duzu?
4. Herritarrek aukeratutako 16 ordezkariak eta Alkateak osatzen dute Udalbatzarra, zela deitzen zaie 16 ordezkari horiei?
5. Obra bat egiteko baimena eskatzen dugunean Udalean, Udalak idatziz erantzuten du, errekurtsioak aurkezteko eta epeak daudelako. Horrelako jakinarazpenak egiteko langile bat dauka Udalak. Badakizu zela deitzen zaion langile honi?

A. Erantzunak

Idazkaritzara

Alkateordea

Gobernu Batzordea

Udaltzainak

Gizarte laguntzailearekin

Udalaren antolaketa

4.2. Udalean eskaera bat egiten duzunean, badakizu erantzuna ez dela hurrengo egunean izaten; izan ere, eskaera horren ondoren dagokion teknikariaren txostena, batzordearen proposamena, eta abar eta abar izaten dira erabakia hartu aurretik. Ea ba asmatzen duzun zein ordenatan ematen diren urrats horiek etxean obra bat egiteko baimena eskatzen dugunean esate baterako.

Beraz, espediente honen urratsak ordenatu:

**Herritarraren eskabidea
udalean erregistratu**

Gobernu batzordearen erabakia

Teknikariaren txostena

Obrari dagokion tasa ordaintzea

**Herritarrarentzako
jakinarazpena**

**Batzorde informatzailearen
proposamena**

➤ Zein ote da goiko nahaspila honen ordena zuzena?

1.

4.

2.

5.

3.

6.

Bosgarren ariketa

5.1. Zeuk idazteko ariketa bat proposatzen dizugu orain, Udalari diru-laguntza bat eskatzeko idatzia hain zuzen ere.

Gogoratu eskatzen dena garbi adieraztea oso garrantzitsua dela beti, eta horretaz gain kasu bakoitzean dagozkion argibideak (arrazoiak, helburuak, diru-kontuak...) ere ematea komeni izaten dela.

Pentsa, adibidez, mendizale taldekoa zarela eta aurten dirulaguntza berezia eskatu nahi duzuela; alde batetik, urteko ekintzak aurrera eramateko eta, bestetik, elkartearen 25. urteurrena delako udan zeharkaldi berezi bat eta liburu bat egin nahi dituzuela.

ESKABIDEA

5.2. Eta orain interesgarria litzateke taldeka elkartzea (2-3-4 lagunekoak) eta egin dituzuen eskabide desberdinak irakurri ondoren, denon artean eskabide gutunak izan beharko lituzkeen ezaugarriak zerrendatzea.

KONTROL ZERRENDA

1. Lehenengo begiradan (irakurri gabe ere) idatzi horren helburua antzematea
2. Eskatzailearen datuak argi ematea
- 3.
- 4.
- 5.

Egoki eta ulergarri idazten al dugu?

Seigarren ariketa

Aurreko ariketan ikusiko zenuten bezala, helburu bera izan arren (aurreko kasuan diru-laguntza eskatzea) oso modu desberdinetan idatzi eta aurkez daitezke agiriak.

Horixe da, ba, orain aztertzea proposatzen dizuguna: **zeri kasu egin behar diogu idatzi bat zuzen, zehatz, ulergarri eta txukun egon dadin?**

Guk aholku batzuk ematen dizkizugu, gure ustez, kontuan hartzekoak, eta ondoren esaldi edota testu zati batzuk jarri ditugu —beti ere bi modu desberdinetan idatzita— **zein den egokiena eta zergatik erabaki** dezazun. Ondoren, interesgarria litzateke taldeka edo gelan komentatzea eta modu egokiagoren bat topatzen baduzue berriz idaztea.

Kontuan hartzeko batzuk:

- * Zein da idatziaren helburu nagusia? (zeozer eskatu, informazioa eman, eskerrak eman...)
- * Zein da hartzailea eta zenbat informazio du gai horretaz?
- * Ze idatzi mota egin nahi dugu? Ze itxura emango diogu?
- * Izenburu orokorrak eta azpi-izenburuak jartzea komeni al da?
- * Zein da/dira mezu edo ideiarik garrantzitsuena/k, zeintzuk azalpen osagarriak?
- * Zela antolatu parrafoak eta esaldi barruko elementuak?
- * Zenbat ideia eman esaldi bakoitzean? Ez al da hobe esaldi bakoitzean ideia bakarra garatzea?
- * Pareko ideiak egitura paraleloetan antolatu daitezke?
- * Informazio nagusia (askotan aditzak ematen duena) aurreratzea komeni al da?
- * Eta zela konpondu gaztelaniaren egiturari jarraituz egiten ditugun aldrebeskeriak? Esaldi luzeegiak, perifrasiak, nominalizazioak, ezezko esaldi ilunak...
- * Lehenengo irakurraldian ulertzen al da?
- * Betetzen al dira gramatika-arauak?
- * Puntuazio-markak egoki erabilia al daude?
- * Idatziaren tonua egokia al da?

Bestetik?

Egoki eta ulergarri idazten al dugu?

Zein da egokiagoa?

Zergatik?

Helburua lortu ahal izateko aukera izan dezagun beharrezkoak diren baldintzak aztertu beharko ditugu.	Helburua lortzeko baldintzak aztertu beharko ditugu.
Herriko plazaren izendapenaren aldaketari onespina eman zioten bertaratutako zinegotziek	Herriko plazaren izena aldatzea onartu zuten bertaratutako zinegotziek
Uste dugu lanpostuan 4. hizkuntza eskakizuna ez dutenak ere azterketara aurkez daitezkeela.	Ez dugu uste lanpostuan 4. hizkuntza eskakizuna ez dutenak ezin direnik azterketara aurkeztu.
Izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoan bizikidetzatza, goi-mailako ikasketak, euskararen eta ingelesaren ezagupena, antzeko lanetan bi urteko esperientzia eta ordenadoreen erabilpenaren ezagutza izan beharko ditu.	Aurkezten direnek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> • Euskal Autonomia Erkidegoan bizi zitea. • Goi-mailako ikasketak izatea. • Euskara eta ingeleza jakitea. • Bi urteko esperientzia izatea antzeko lanetan. • Ordenadoreak erabiltzen jakitea.
Kontuan izan badirela liburu batzuk liburutegiko arduradunak interesdunei baimena ematen ez dieten bitartean ezin eraman daitezkeenak mailegu kontzeptuan, horrelakoetan, beti ere, eskabide-orrria betetzeari ekin beharko zaiola, eta, gehienez ere, 15 eguneko epean itzuli, epez kanpoko itzulketak mailegu-eskubide ezberdinak galtzea suposatuko duelarik.	<u>Liburutegiko erabiltzaileentzako o harra</u> Liburu batzuk maileguan ateratzeko liburutegiko arduradunak baimena eman behar du. Horretarako, aurrez eskabide-orrria bete behar da. Baimena jaso eta liburu hartu ondoren, 15 eguneko epean barruan bueltatu behar da. Epe horretan itzuli ezean, berriz, maileguetarako eskubidea galdu egingo da. Bergara, 2002-02-22 Liburutegiko arduraduna
Kanpaien zarata neurtzeko zure etxera sartzeko baimen-eskaera Datorren egunean, apirilak 20, gaueko 10etan, San Pedro parrokiako kanpaien zarata neurtu behar dugu, eta neurteta hori zure etxetik egitea komeni da. Hori dela eta, zure etxera sartzeko baimena eta aipatutako egun eta orduan etxean egotea eskatzen dizugu honen bidez. Aurrez zure laguntza eskertuaz, adeitasunez agurtzen zaitut.	Honako honen bidez jakinarazten dizut datorren egunean, hilak 20, 10etan San Pedro parrokiako kanpaien zarata neurteta egingo dugula, eta honenbestez neurteta burutzeko zure etxetik egitea komeni denez aipatutako egunean zure etxera sartu behar dugu eta etxean egongo zarela, adeitasunez agurtzen zaitugu.
Udal-aparejadorearen proposamena onartzea eta esleipendunak esleitutako lana erabakia jakinarazten zaion unetik 15 eguneko epean aurkeztu beharko duela erabaki du aho batez Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzorde informatzaileak.	Hirigintza, Obra eta Ingurumen Batzorde Informatzaileak ondorengo erabaki du aho batez. <u>Erabakia</u> * Udal-aparejadorearen proposamena onartzea. * Adjudikazio-hartzaileari 15 eguneko epea ematea – erabakia jakinarazten zaion unetik kontatuta – adjudikatutako lana aurkezteko.

Zazpigarren ariketa

Udalerrria (erdigunea behintzat) ezagutzen duzuen ikusteko ariketa bat orain.

Jolas moduan egin dezakezue hau ere. Horretarako, bi plano prestatu ditugu bakoitzak bat har dezazuen. Bati falta zaizkizuen kale eta eraikinen izenak besteak izango ditu. Hortaz, ikaskideari galderak eginez bete ahal izango dituzue bi planoak.

Zuk **A** plano hartu eta ea zela konpontzen zaren ondoren zerrendatzen ditugun kale, plaza, eraikin eta abar bakoitza bere lekuan kokatzeko. Badakizu zure ikaskideak lagun zaitzakeela.

Bergarako kaleak, plazak...	Bergarako eraikinak
Argizain plaza Aritzetako San Migel kalea Arrizuri kalea Egino Mallea plaza Erregetxo plaza Gabria kalea Ibaiondo pasealekua Iraburu kalea Oxirondo plaza Ramon Maria Lili kalea	Irizar jauregia Arostegi etxea Jauregi etxea Agirrebeña etxea Errekalde dorretxea Laureaga etxea Arrese dorretxea

Zure ikaskideak jakin nahi dituenak hauek dira, eta zure planoan ageri dira; beraz, ea zela laguntzen diozun!

Bergarako kaleak, plazak...	Bergarako eraikinak
Urteaga kalea Ramon Oiarzabal kalea San Pedro kalea Madalena plaza Ostetako bidea Laudantz kantoia Arruriaga kalea Irizar pasealekua Eustakio Urdangarin pasealekua Joan XXIII.a plaza	Egino Mallea jauregia - 5 Errege Seminarioa - 8 Ondartza eta Olaso dorretxeak - 11 Gabria dorrea - 14 Errotalde jauregia - 19 Mizpirualdeko kapera - 21 Izagirre Moia etxea - 31

Bergara ezagutzen

Zazpigarren ariketa

Udalerrria (erdigunea behintzat) ezagutzen duzuen ikusteko ariketa bat orain.

Jolas moduan egin dezakezue hau ere. Horretarako, bi plano prestatu ditugu bakoitzak bat har dezazuen. Bati falta zaizkizuen kale eta eraikinen izenak besteak izango ditu. Hortaz, ikaskideari galderak eginez bete ahal izango dituzue bi planoak.

Zuk **B** plano hartu eta ea zela konpontzen zaren ondoren zerrendatzen ditugun kale, plaza, eraikin eta abar bakoitza bere lekuan kokatzeko. Badakizu zure ikaskideak lagun zaitzakeela.

Bergarako kaleak, plazak...	Bergarako eraikinak
Urteaga kalea Ramon Oiarzabal kalea San Pedro kalea Madalena plaza Ostetako bidea Laudantz kantoia Arruriaga kalea Irizar pasealekua Eustakio Urdangarin pasealekua Joan XXIII.a plaza	Egino Mallea jauregia Errege Seminarioa Ondartza eta Olaso dorretxeak Gabiria dorrea Errotalde jauregia Mizpirualdeko kapera Izagirre Moiuia etxea

Zure ikaskideak jakin nahi dituenak hauek dira, eta zure planoan ageri dira; beraz, ea zela laguntzen diozun!

Bergarako kaleak, plazak...	Bergarako eraikinak
Aritzetako San Migel kalea Gabiria kalea Arrizuri kalea Erregetxo plaza Ramon Maria Lili kalea Argizain plaza Egino Mallea plaza Iraburu kalea Oxirondo plaza Ibaiondo pasealekua	Irizar jauregia - 4 Arostegi etxea - 7 Jauregi etxea - 10 Agirrebeña etxea - 12 Errekalde dorretxea - 18 Laureaga etxea - 24 Arrese dorretxea - 30

Administrazio hizkera hobeto ezagutzeko eta idazkera hobetzeko **BIBLIOGRAFIA** interesgarria:

- "Argiro idazteko proposamenak eta ariketak". HAEE/IVAP. 1997
- "Euskal Estilo Libururantz". Xabier Alberdi eta Ibon Sarasola. 2001
- "Estilo liburua" Egunkaria. 2001
- "Idazkera liburua" Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnal. 1993

Euskarako zuzentzaile ortografikoa (XUXEN) eskuratzeko eta hizkuntzari buruzko kontsultak egiteko helbide elektroniko interesgarri batzuk:

HAEE/IVAP en menua XUXEN eskuratzeko eta Administrazioko gaien inguruko kontsulta interesgarri ugari egiteko modua eskaintzen du	http://www.ivap.org/eusk/menu_eus.htm
UEMA "Euskara baliabideak"	http://www.uema.org/
EUSKALTZAINDIA	http://www.euskaltzaindia.net

HIZTEGIAK (euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara):

EUSKALTERM	http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
ELHUYAR hiztegia	http://www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm
3000 hiztegia	http://www1.euskadi.net/hizt_3000/indice_e.htm

Beste hiztegi eta entziklopedia interesgarri batzuk: <http://www.hiztegia.net/>

Unitate honen bultzatzailea: **Bergarako Euskara Zerbitzua**

Prestatzailea: **Maripi Laskurain**

Laguntzailea: **Nora Palmitano**



BERGARAKO UDALA